PERTSONA ZAINTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA EMATEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA.

Lehenengo klausula: XEDEA

Kontratu honen xedea da pertsona zaintzaileei laguntza emateko eta esku-hartze psikosoziala emateko zerbitzuak kontratatzea, baldintza teknikoen pleguarekin, eta kontratu-izaera izango duen espedientean agertzen den gainontzeko agiri teknikoekin bat etorriz.

I ERANSKINA, 185/2015 DEKRETUARENA, URRIAREN 6KOA
ZERBITZUEI ETA PRESTAZIO EKONOMIKOEI DAGOZKIEN FITXAK

Bigarren klausula: ZERBITZUAREN HELBURUAK

Arlo psikosozialean esku-hartzea (urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren I. Eranskineko 1.3 fitxa):

Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke.

Zerbitzu honen helburuak dira erabiltzaileek:

a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-inguruneko bizikidetza egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzea eta garatzea;

b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin ordezkatzea.

Zaintzaileei laguntza emateko zerbitzua (urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren I. Eranskineko 1.4 fitxa)

Zerbitzu honek mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsonei gizarte- eta familia-arloko babesa emateko sarea osatzen duten zaintzaileei aukera ematen die zaintzarako eta norberaren zaintzarako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko.

Honako helburu hauek ditu:

a) Zaintzaileek eskainitako zainketen kalitatearen hobekuntza bultzatzea.
b) Zaintzaile nagusien bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatzea.
c) Beste zaintzaile batzuen erantzunkidetasuna bultzatzea.
d) Zaintzarako eta norberaren zaintzarako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko aukera ematea.

Hirugarren klausula: ZERBITZUAREN JARDUTEKO EREMUA

Aipatutako zerbitzuaren jarduna, oro har, udal eremuan kokatzen da, jarduera zabala eta balio anitzekoa emateko, hain zuzen:

a) Esku-hartze piskosozialaren baitan, ondorengoa dago:
Informazioa.
Esku-hartze psikosoziala.
Jarraipen-balorazioa.
Gizarte laguntza.
Bitartekaritza.

b) Zaintzaileei laguntza ematearen baitan, ondorengoa dago:
Informazioa.
Orientabidea.
Prestakuntza.

Esku-hartzea maila indibidualean, taldeka zein ingurune komunitarioan egin daiteke, eta kontuan izango du beste udal zerbitzu edo sail batzuekin izandako koordinazioa. Era berean, garrantzitsua izango da prebentziozko eta sustapenerako ikuspuntua izatea.

Laugarren klausula: LURRALDE EREMUA

Zerbitzua, batez ere, Zierbenako Udalerriko mugartean eskainiko da, eta bertan erroldatutako pertsonei zuzendutakoa izango da.

Bosgarren klausula: BIZTANLERIA HARTZAILEA

Zerbitzua jaso ahal izango duen biztanle hartzaileak, oro har, Zierbenan erroldatuta dauden herritarrak izango dira, bereziki:

a) Esku-hartze psikosoziala:

- Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak.
- Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak.

- Babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeak; babesgabetasun-arriskuko egoera larrian dauden adingabeak edo helduak zerbitzu honetatik kanpo geratuko dira, pertsona horiek artatzea Familiekin Gizarte- eta Hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean Esku hartzeko Zerbitzuari dagokiolako (2.7.3.1.)

b) Zaintzaileei laguntza ematea:

- Mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden zaintzaile ez-profesionalak, zaintzaile nagusiak diren edo ez eta ahaideak diren edo ez kontuan izan gabe.

Seigarren klausula: TALDEA OSATZEA

Zerbitzua osatuko duen talde profesionala gutxienez psikologo batek osatuko du.

Zazpigarren klausula: LANGILEEI DAGOZKIEN BALDINTZAK

Langileen disponibilitatea

Enpresa esleipendunak plegu honetan agertzen diren lan zehatzak burutzeko beharrezkoa den pertsonala izango du eta langile horiek prestakuntza egokia izan ebharko dute.

Era berean, lan horiek gidatzeko titulazio egokia (gutxienez psikologo/a bat) eta eremu horretan trebakuntza eta eskarmentua dituen pertsona bat izango du gutxienez.

Udalak ez du inolako harreman juridiko, laboral edota beste edozein motatako harremanik izango enpresa esleipenduneko langileekin, ez kontratuak irauten duen bitartean, ez bukaeran, ezta kontratua iraungitakoan ere.

Enpresa esleipendunak ezin izango du eskaintzen duen zerbitzua edo Udalak agintzen dion zerbitzua bertan behera utzi edo atzeratu pertsonal faltaren aitzakiapean; hortaz, lan hori burutzeko beharrezkoa duen pertsonala izango du.

Langileen aldaketak

Kontratuari hasiera ematen zaionetik kontratuak iraun bitartean, pertsonalean aldaketaren bat egin behar bada, erretiroa, heriotza, borondatezko bajak, kaleratzeak, behin-betiko ezintasunak, behin-behineko ezintasunak etab. direla medio, edota zerbitzuak hala eskatuta aldaketaren bat eman behar bada, enpresa esleipendunak

aldaketa horren berri idatziz eman beharko dio Udalari. Jakinarazpenean ondoko datu hauek agertu beharko dute: izen-abizenak, titulazioa eta kontratu mota.

Ardurak

Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu langileek Zierbenako Udalean kontratuari hasiera eman zaion egunetik aurrera egindako faltak, eta falta horien ondorioz edo akasdun zerbitzua eskaintzeagatik instalazio eta ondasun bai publiko bai pribatuetan edota pertsonengan eragindako kalte guztiak konpondu/ordaindu beharko ditu.

Langileen trebakuntza, segurtasuna eta higienea eta zerbitzu medikoa

Enpresa esleipendunak indarrean dagoen legediak zehaztutako betebeharrak bete beharko ditu, bai soldatei dagokionean, baita gizarte segurantza, lan-istripuak, trebakuntza, segurtasuna eta higieneari etab. dagokienean ere.

Adierazitako eremu horietakoren bat ez betetzeak Udalari kontratua apurtzeko aukera emango dio.

Udalak ez du inolaz ere ardurarik izango, enpresa esleipendunak bere langileekin dituen betebeharrak ez betetzeagatik, edota kontratua betetzeagatik eratorritako kalteeengatik.

.

Zortzigarren klausula: LANGILEEN SUBROGAZIOA ETA LAN HARREMANA

Inola ere ez da ulertuko langile horiek Zierbenako Udaleko pertsonalaren parte direla, ezta udalarekiko dependentzia funtzional edo organikoa dutenik ere. Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu langile horien lan hitzarmenetan aurreikusitako soldata igoerak, edota hitzarmen horietan egin daitezkeen aldaketetatik eratorritako hobekuntzak ere; aitzitik, arrazoi horiek medio, kontratuan ez da inolako aldaketarik egingo.

Bederatzigarren klausula: URTEKO EGUTEGIA

Urteko egutegia jarduearen beharrizanen araberakoa izango da, eta egutegia zehazteko, kontuan hartuko dira urtean zehar egin beharreko lanak, udako denboraldiak, oporraldiak etab.

Hamargarren klausula: ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Programa hau atxikita dagoen Gizarte-ekintza, haurtzaroa eta Berdintasun

Sailak, jardueraren jarraipena egingo du. Halaber, enpresa esleipendunak urtean memoria bat egiteaz gain, zerbitzuaren funtzionamenduari buruz beharrezkoa den eta eskatzen den informazioa emango du. Sail hau zerbitzuaren irizpide estrategikoetarako eta betekizun teknikorako erreferentzia izango da.

Enpresa esleipendunak, zerbitzu honen hornitzaile den heinean, indarrean dauden araudiak eta betekizunak bete beharko ditu: zerbitzu sozialak, datuen babesa, berdintasuna, etab…

Edonola ere, prezion deskontatu egingo da, eman gabe gelditu den zerbitzuaren proportzioan.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE INTERVENCION PSICOSOCIAL Y SERVICIO DE APOYO A PERSONAS CUIDADORAS, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.

Cláusula primera: OBJETO

El contrato tendrá por objeto la prestación del servicio de intervención psicosocial y servicio de apoyo a personas cuidadores, de acuerdo con el pliego de prescripciones técnicas y el resto de la documentación técnica que figura en el expediente y que tendrá carácter contractual.

ANEXO I AL DECRETO 185/2015, DE 6 DE OCTUBRE
FICHAS DE LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES ECONÓMICAS

Cláusula secunda: OBJETIVOS DEL SERVICIO

Servicio de apoyo psicosocial (1.3 de la ficha de servicios del Anexo I al Decreto 185/2015 de 6 de octubre):

Este servicio consiste en un conjunto de prestaciones relacionales de apoyo psicosocial –de carácter individual, familiar y/o grupal– que pueden desarrollarse tanto en el domicilio familiar (educación doméstica, intervención familiar básica) como en el entorno comunitario (educación de calle, intermediación,…).

Sus objetivos son que las personas usuarias:

a) adquieran y desarrollen capacidades (actitudes, aptitudes, conocimientos, criterios, pautas, habilidades) personales, familiares o grupales, que favorezcan su desenvolvimiento autónomo, su inclusión social y la adecuada convivencia en el medio familiar y comunitario;

b) sustituyan hábitos, conductas, percepciones, sentimientos y actitudes, que resulten inadecuados por otros más adaptados.

Servicio de apoyo a personas cuidadoras (1.4 de la ficha de servicios del Anexo I al Decreto 185/2015 de 6 de octubre)

Este servicio ofrece a las y los cuidadores que forman parte de la red socio familiar de apoyo de personas en riesgo o situación de dependencia, la posibilidad de adquirir conocimientos, actitudes y habilidades de cuidado y auto-cuidado.

Sus objetivos son:

a) Favorecer una mejora de la calidad de los cuidados ofrecidos por las personas cuidadoras.

b) Favorecer una mejora en la calidad de vida de las y los cuidadores principales.

c) Favorecer la corresponsabilidad de otras y otros cuidadores.

d) Favorecer la adquisición de conocimientos, actitudes y habilidades de cuidado y auto-cuidado.

Cláusula tercera: ÁREA DE ACTUACIÓN DEL SERVICIO

Prestaciones a desarrollar por dicho servicio se ubica de manera general en el contexto municipal para aportar una actividad extensa y polivalente:

c) La intervención psicosocial incluirá:
Información.
Intervención psicosocial.
Valoración de seguimiento.
Acompañamiento social.
Mediación – Intermediación.

d) El apoyo a personas cuidadoras incluirá:
Información.
Orientación.
Formación.

La intervención se desarrolla tanto a nivel individual, como grupal y comunitario y tendrá en cuenta la coordinación con otros servicios y departamentos municipales. Así mismo tendrá en consideración la importancia de un enfoque preventivo y de promoción.

Cláusula cuarta: ÁMBITO TERRITORIAL

El servicio se prestará, principalmente, dentro del ámbito territorial del Municipio de Zierbena y estará dirigido a las personas empadronadas en el mismo.

Cláusula quinta: POBLACIÓN DESTINATARIA

El servicio tendrá como población general destinataria la del municipio de Zierbena con especial atención a:

c) La intervención psicosocial:

- Personas en riesgo de exclusión.
- Personas en riesgo de dependencia.
- Personas menores de edad en situación de riesgo leve o moderado de desprotección, quedando excluidas las personas en situación de riesgo de

desprotección grave, menores de edad o adultas, cuya atención corresponde a los Servicios de Intervención Socioeducativa y/o psicosocial con Familias (2.7.3.1).

d) El apoyo a personas cuidadoras:

- Personas cuidadoras no profesionales de personas en riesgo o situación de dependencia, sean o no cuidadoras principales y sean o no familiares.

Cláusula sexta: COMPOSICIÓN DEL EQUIPO

El equipo profesional que integrará el servicio estará compuesto por al menos de un/a Psicólogo/a.

Cláusula séptima: CONDICIONES RELATIVAS A LOS MEDIOS PERSONALES

Disponibilidad del personal

La empresa adjudicataria deberá disponer del personal necesario con cualificación suficiente para efectuar los trabajos específicos en el presente Pliego.

Deberá disponer igualmente, al frente de los mismos, de al menos, una persona con Titulación (al menos un psicólogo), con formación y experiencia en este ámbito.

El Ayuntamiento no tendrá relación jurídica, ni laboral con el personal de la empresa adjudicataria, durante el plazo de vigencia del contrato, ni al término, ni una vez extinguido el mismo.

La empresa adjudicataria, no podrá pretextar la falta de personal para suspender o retrasar los servicios ofertados o que expresamente le ordene el Ayuntamiento, debiendo disponer en todo momento del necesario para su ejecución.

Variaciones de la plantilla

Durante la vigencia del contrato, siempre que se vaya a producir una variación de la plantilla con la que se inicia el Contrato, bien sea por jubilación, defunción, baja voluntaria, despido, invalidez permanente, invalidez temporal, etc., o siempre que se produzca una variación por necesidades del servicio, la entidad adjudicataria está obligada a comunicar por escrito tal hecho al Ayuntamiento. En la comunicación deberá indicarse los siguientes datos: Identidad, titulación, tipo de contrato.

Responsabilidades

La adjudicataria será responsable ante el Ayuntamiento de Zierbena de las faltas que cometa su personal y quedará obligada al resarcimiento de todos los daños que, con motivo de la defectuosa prestación del servicio o de su funcionamiento normal o anormal, se causen tanto a las instalaciones y bienes, públicos como privados, como a las personas a partir de la fecha de inicio del contrato.

Formación del personal, seguridad e higiene y servicios médicos.

La adjudicataria quedará obligada al cumplimiento de las obligaciones laborales que determine la legislación vigente, en materia de salarios, seguridad social, accidentes de trabajo, puntualidad laboral, formación, seguridad e higiene, etc.

El incumplimiento de cualquiera de estos aspectos facultará al Ayuntamiento para la resolución del contrato.

En ningún caso incumbirá responsabilidad alguna al Ayuntamiento, sino sólo a la contratista, por lo que pudiera provenir el incumplimiento de las obligaciones que la adjudicataria tuviera contraídas con sus trabajadores/as, o de los daños que pudieran derivarse de la ejecución de las diversas prestaciones objeto del contrato.

Cláusula octava: SUBROGACIÓN DE PERSONAL Y RELACIÓN LABORAL

En ningún caso se entenderá que los trabajadores se integren en la plantilla del Ayuntamiento de Zierbena ni que tengan ninguna relación de dependencia funcional u orgánica con el mismo. La empresa, se hará cargo en todo caso y sin que quepan modificaciones del contrato por ese motivo, de los incrementos salariales que se pudieran suceder en los convenios de dichos trabajadores, así como de cualquier otra mejora que surja con objeto de la modificación de dichos convenios.

Cláusula novena: CALENDARIO ANUAL

El calendario anual se ajustará al desarrollo de la actividad y contemplará los flujos anuales, periodos estivales, vacacionales, etc.

Cláusula décima: SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL SERVICIO

El Área de Acción Social, Menor e Igualdad, al que está adscrito el programa mantendrá un seguimiento de la actividad y la entidad adjudicataria facilitará además

de una memoria anual, la información suficiente y que se requiera sobre la marcha del servicio. Así mismo, dicho departamento se mantiene como referente para las directrices estratégicas del servicio y como referente para el cumplimiento técnico.

La entidad adjudicataria como proveedora de dicho servicio público se atendrá en su desempeño a las normativas y obligaciones en vigor: servicios sociales, protección de datos, igualdad, etc.

En cualquier caso, se minorará del precio, la proporción del servicio que hubiera dejado de cumplir.